







Energia kontsumoa EAEn



Energiaren kontsumoa EAEn







Elektrizitatea
Kontsumitutako elektrizitateak %3,2 egin zuen behera urrian, 2011. urteko hil berean izandakoaren aldean; oro har, industrian %6,9 jaitsi zen, eta zehazki, siderurgian %6,5, garraiobideen eraikuntzan %12,5, makina eta metalen eraldaketan %7,1 eta beiragintzan %19,8. Zerbitzu alorrean ere kontsumoak behera egin zuen, %1,3; eta bizitegi arloan, ordea, elektrizitatearen kontsumoa %10 igo zen. 2012. urteko metatuari dagokionez, kontsumoa %7,5 jaitsi da. 2011ko urrira artekoaren aldean. Hala, industrian %12,1 egin du behera; zerbitzu eta bizitegiaren, berriz, %0,7 igo da.

Gas naturala
Urrian izandako gas naturalaren kontsumoak %4 egin zuen gora, 2011ko aldi berean izan zenarekin alderatuta. Zentral termikoen kontsumoa %4 igo zen eta gainerako alorrean %8. 2012. urtean metatutako kontsumoak %2 egin du gora, 2011ko epealdi berean izandakoarekin konparatuta. Igoera horren %5 zentral termikoei dagokie eta gainerako alor kontsumitzaileei %1,1.

Erregaiak garraioan
Irailean, garraioan erregaien kontsumoa %1,7 igo zen, 2011. urteko hil berean izandakoaren aldean. Gasolinarenak %11,6 egin zuen behera eta gasolioenak, aldiz, %3,8 egin zuen gora. Urteko metatua, irailera arte, %5,1 igo da. Zehazki, gasolinena %6,6 igo da eta gasolioena, ordea, %4,8 jaitsi da. Joera aldaketa horretan zerikusi handia eduki ahal izan du mugako erkidegoetan Hidrokarbuo Zenbaiten Xehakako Salmenten Gaineko Zerga (IVMDH) igo izanak.

Iturriak: EEEK prestatua, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.

Kanpoko Egoera



EAetik kanpoko egoera

Petrolioaren kontsumoa munduan







Urrian, munduan petrolioaren kontsumoa 89 milioi kupel egunean izan zen (2011ko urriaren aldean, %0,3 igo zen). Hala, Europar Batasunean %2,1 egin du behera kontsumoak urtebetean, 14,1 Mbd kantitatera iritsiz; AEBetan %1,6 jaitsi da, eta 18,5 Mbd kopuruan kokatu da. Txinan, aldiz, %1,8 egin du gora, eta 10,3 Mbd kontsumitzera heldu da. Munduan, petrolioaren eguneroko batez besteko kontsumoa %1 igo da azken sei hilabeteen, oro har, eta Txinan %2,9; Europar Batasunean eta AEBetan, berriz, %3,6 eta %1,9 jaitsi da, hurrenez hurren.

Energiaren kontsumoa Espainian

Gas naturalaren kontsumoa %0,2 jaitsi zen urrian, Espainian; 2011n, hil horretan, izandakoaren aldean; eta urtean metatutako kontsumoak %3,5 egin du behera. Elektrizitatearen kontsumoak ere behera egin zuen (%1,8), 2011ko urrian izan zenarekin erkatuta, eta 2012. urteari dagokion metatua 2011n izandakoaren mailaren azpitik dago (-%0,6). Espainiako errepideetan erregaien kontsumoak %13,6 egin zuen behera irailean, 2011ko hil berean izandakoarekin alderatuta; gasolinaren kontsumoa %14 jaitsi zen, eta %13,5 gasolioen kasuan. Irailera arte metatutako kontsumoa %6,3 jaitsi zen (%6,8 gasolinena eta %6,1 gasolioena). Bestetik, hegazkinetan erabiltzen den kerosenoen kontsumoak %7,5 egin zuen behera irailean, eta 2012an metatua %6,1 jaitsi da.

Iturriak: REE, CORES, Enagás, EEEK prestatua, AIE eta EIaren datuetan oinarrituta.

Energiaren prezioa



Energiaren prezioa

Petrolioaren prezioa

Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 112 \$ (86,3 €) izan zen urrian. Urrira arte, urtean batez besteko prezioak %4 egin zuen gora, 2011koaren aldean (%12,3 eurotan).

Gas naturalaren prezioa

Spot (UK NBP) gas naturalaren prezioa %19 igo zen irailan, 2011ko hil berean izandakoarekin erkatuta, eta 25,3 €/MWh izan zen. Alemanian, inportazioaren batez besteko prezioak %13,6 egin zuen gora irailan, iazko hil berean izandakoaren aldean, eta 28,7 €/MWh iritsi zen.

Ikatzaren prezioa

Irailan ikatzaren prezioa 88,3 €/t CIF ARA izan zen; hori horrela, azken hamabi hilabete hauetan %29,1 jaitsi da.

Elektrizitatearen prezioa

OMIE eguneroko merkatuan, Espainian, elektrizitatearen prezioak %20,6 egin zuen behera urrian, urtebete lehenago hil horretan izandakoarekin konparatuta, eta 45,6 €/MWh iritsi zen.

Erregaien prezioa

EAEn, gasolioaren prezioa 1,38 €/l izan zen eta gasolinarena 1,43 €/l urrian. Iazko hil berean izandakoekin alderatuta; prezioak %9,2 eta %9,8 igo ziren, hurrenez hurren.

CO₂-ren prezioa

CO₂-aren EUA baimenaren etorkizuneko prezioa 7,9 €/t izan zen irailan; 2011ko hil horretan izandakoarekin konparatuta, %33,5 egin zuen behera.

Iturriak: EEEK prestatua, OMIE, CESUR, CNE, eta BAFAREN datuetan oinarrituta.